


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoa dugu beste hainbat erakunderen laguntza, eta zati honetan, funtsezko elkarteak erakutsiko dizkizuegu. Hau da, proiektuak funtziona dezan egin beharreko elkarre guztiak.

Lehenik eta behin, gure produktua ekoizteko beharrezkoa dugu aurikularrak sortzen dituen enpresa batekin akordio batera iristea. Logitech enpresarekin egingo dugu elkarrea, izan ere, oso enpresa ezaguna denez, jende askoren interesa piztu dezake. Gainera, oso kalitate oneko produktuak ekoizten dituen enpresa dela balioztatu dezakegu, enpresa hainbat produktu erabiltzen ditugu eta. Horrez gain, aurikularren kaxak guk sortuko ez ditugunez, hauek ekoiztuko dituen lan-talde bat aurkitu behar dugu. “Orbelan Plasticos Sa” enpresarekin hitz egingo dugu honetarako, hau Andoainen dagoenez, gertu daukagulako. Honek erraztasuna emango digu arazorik gertatzen bada azkar konpondu ahal izateko eta behar denean bilera bat egin eta elkartzeko. Behin produktuaren bi zati nagusiak edukita, guk geuk lotuko ditugu salmentan erabiltzeko.



Horrez gain, plastikozko poltsa txikiak eta kartoizko kaxa txikiak produzitzen dituen enpresa batekin kontaktatuko dugu. Enpresa hau Coplasem S.L da; hau aukeratu dugu hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, behar ditugun bi produktuak ekoizten ditu (poltsak eta kaxak), beraz, guretzako erosoagoa da. Bestalde, Bizkaian kokatuta dago; oso gertu gaudenez, aurretik aipatu dugun bezala, arazorik gertatuko balitz erraza izango zen beraiekin elkarrekin eta konpontzea. Gainera, enpresa honek ingurumena errespetatzen du ekoizpeneko prozesu guztietan, eta hau oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

Gure produktuaren kanpoko itxura nolakoa izango den irudikatzen dugun arren, barruko mekanismoa egokia izateko, diseinadore grafikoaren laguntza beharko dugu, mekanismo hau garrantzi handikoa delako Auka-ren funtzionamendurako. *Ocram Estudios*-ekin kontaktatuko dugu atal hau aurrera eramateko. Diseinu pertsonalizatuak eskaintzen dutenez, beraieri bidaliko diogu aurikularren barruko plano bat eta funtzionamentuaren definizioa, lehenengo prototipoa sortzeko eta beste guztiak ere.

Gure lana egiteko, lokal bat beharko dugu, esan bezala guk produkzio prozesuan parte hartu behar dugulako. Honetarako, UGGASA-rekin (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.) kontaktatuko dugu, kapital publikoa duen erakundea, irabazi asmorik gabekoa eta interes orokorreko jarduerak bultzatzen dituena. Gainera, lokala erabiltzeko prest dago, hau da, ez zaizkio aldaketarik egin behar; argindarra, wifia, gasa, altzariak eta beste hainbat zerbitzu (Internetara adibidez) eskaintzen dizkizute hilabetean 30€gatik. Lokal hau erabiliko dugu piezen muntaketa egiteko eta bidali beharreko eskaera guztiak prestatzeko. Eskaera eta kontaktu guztiak egiteko ere erabiliko dugu, eta behar izanez gero, bilerak egiteko gune bat erabiltzeko aukera izango dugu.



“Bezeroarekiko harremanak” atalean esan dugun bezala, gure produktuak Espainiako hainbat denda fisikoetan salgai egongo dira; beraz, denda hauekin, hau da, Fnac eta Media Markt-ekin kontaktuan jarriko gara, gure produktuaren berri izan dezaten eta modu berean, produktua bera saldu dezaten. Gauza bera egingo dugu produktua salduko duten Urretxu eta Zumarragako gailu elektronikoko eta bazar dendekin. Bestalde, aurretik esan bezala, Amazon enpresarekin egin beharko dugu kontaktua, gure produktuak saltzeko erabili nahi dugun interneteko webgunea delako.

Gure produktua berria denez, beste inork gure ideia lapurtu ez dezan, Auka patentatuko dugu. Horretarako, Asesoría Lanki S.L-eko abokatu batekin kontaktuan jarriko gara, Urretxukoak direnez gertu dauzkeu kontaktua sartzeko eta haren laguntzarekin prozesu hori aurrera eramango dugulako.



Publizitateari dagokionez, gure produktua berria denez eta ez duenez inork ezagutzen, aurretik esan bezala sare sozial eta musika entuzteko app-etan iragarkiak jarriko ditugu; hala nola, Spotify, Youtube eta Soundcloud. Honetarako, lehenik app-ekin kontaktatuko dugu. Ondoren, “*Muñagorri Agencia de publicidad | diseño grafico | rotulacion | imprenta*” Donostiako agentziarekin kontaktatuko dugu, toki bakoitzera hobeto moldatzen diren iragarkiak sortzeko.

Azkenik, proiektu hau aurrera eramateko, BBVA bankuarekin hitz egin beharko dugu, mailegu bat eskatzeko. 18 urte baino gutxiago ditugunez, nahiz eta gure izenean ireki kontu korrontea, gurasoek onespina eman behar dute; kontu honen bitartez eskatuko dugu mailegua. Diru hau baliatuz, lokalaren alokairua eta hornitzaileak ordainduko ditugu, besteak beste. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontaktuan jarri beharko gara enpresa berriei ematen dizkien diru laguntzak lortu ahal izateko.

